

EPAI BATEK IKASTOLA BAT BEHARTZEN DU MURRIZKTEN ONDORIOZ ERREKLAMATUTAKO KANTITATEAK ETA %10eko INTERESEKAK ORDAINTZERA

Donostiako Lan arloko 5. epaitegiak onartu du Partaideko ikastola baten aurka bi langilek aurkeztutako demanda. Epaiak ikastetxe kondenatzen du bi langileei euren nominetatik kendutako diru kantitateak ordaintzera. Kantitate hauetaz gain, ikastolak kantitate horien %10 ordaindu beharko die berandu ordaintzeagatik. Azkenik, sententziak adierazten du epaiari ezin zaiola helegiterik jarri.

Madrileko Epaitegi Gorenak emandako epaiaren ondoren, zeinak Partaidek eginiko helegitea gutxiesten zuen, ikastola honek ez du bete epai hori eta bi langile hauek aurretik egindako kantitate erreklamazioak aktibatu zituzten eta horrela epaia aipatukoa izan da.

Azken epai hau ere beren eskubideen alde epaitegitara jo zuten itunpeko ikastetxeen langileen aldekoa da eta erakusten die patronalei zein izango den gure erreklamazioen helmuga.

Aldi berean, salatu nahi dugu STEE-EILASen bidez erreklamazioak aurkeztu dituzten langileek pairatutako ikastolaren zuzendaritza kudeatzaileak eginiko presioak. Presioon ondorioz beste langile batzuk bere erreklamazioak aktibatzeari uko egin diote.

Gure elkartasuna adierazi nahi diegu langile hauei eta gure babes eta laguntza eskaintzen diegu bere eskubideen defentsan enpresak ipini diezazkien oztopoak gainditzeko.

Dei egiten diegu ikastola honi eta itunpeko ikastetxe guztiei Epaitegi gorenaren epaia lehenbailehen bete dezaten, har dezaten bere gain daukaten erantzukizuna auzi hau luzatu dadin ekidituz.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org